


# Karkara

47. ZENBAKIA

ORIO ETA AIAKO ALDIZKARIA

1996KO URTARRILA



*Elkarrizketa*

## Mago Jakintsuak

*Erreportajea*

## San Nikolasak

# Urte berri on

# Karkara

egiten dugun guztiek  
urte berri zoriontsua  
opa dizuegu

# Karkara

Herriko Plaza, 1  
Tel. 83 15 27

Lege-gordailua  
SS 346/90  
ISSN  
1132-1105  
Tirada  
1.200 ale

## Erredakzio-taldea

Eba Gaztañazpi  
Ana G. de Txabarri  
Ana Iturain  
Iñaki Iturain  
Nere Manterola  
Ainara Peña  
Jabier Zabaleta

## Aiako Erredakzioa

Eli Lasa  
Idoia Zarautz

## Publizitate-arduraduna

Ana Iturain

## Kolaboratzaileak

Anjel Arruti  
Jose M. Makazaga  
Itziar Urretabizkaia

## Azken orrialdeko marrazkia

Igor Agirregomezkorta

## Argazkiak

Ana G. de Txabarri

## Banatzalea

Miguel Angel Sanz

## Inprimategia

Bizker (Usurbil)

- |    |   |
|----|---|
| 4  | <b>Gutunak</b>  |
| 5  | <b>Herrian galdezka</b><br><i>Nori jarriko zenioke ikatza?</i>      |
| 6  | <b>Herriko kontuak</b>  |
| 10 | <b>Kirolak</b>  |
| 13 | <b>Zine-kritika: Two Much</b>                                       |
| 14 | <b>Iritzia: Jose M. Makazaga</b>                                    |
| 15 | <b>AIA</b>  |
|    | <b>Berriak</b>  |
|    | <b>Erreportajea: Baserri, eliza eta ermitak</b>                     |
| 19 | <b>Erreportajea</b><br><i>San Nikolasak</i>                         |
| 22 | <b>Elkarritzeta</b><br><i>Hiru Errege Magoak</i>                    |
| 24 | <b>Denetik pixka bat</b>  |
| 29 | <b>Kolaborazioa</b><br><i>1954: Frontoia inauguratzeko jaialdia</i> |
| 30 | <b>Azkena</b>   |

## 1996ko publizitate-prezioak

Modulo bat .....	1.500 PTA
Bi modulo .....	3.000 PTA
Hiru modulo .....	4.500 PTA
Lau modulo .....	6.000 PTA
Sei modulo .....	9.000 PTA
Orrialde erdia .....	13.500 PTA
Orrialde osoa .....	27.000 PTA

Prezio hauek zenbaki baterako balio dute. Urtean hamar zenbaki argitaratuko ditugunez, zenbaki guztietan beren publizitatea egin nahi dutenek % 10eko deskontua izango dute prezio hauen gainean.



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak  
diruz lagundutako aldizkaria



Gipuzkoako Diputazioak  
diruz lagundutako aldizkaria

# Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Udal Eskola denontzat

Maiatzean eta Ekainean, Ikastola eta Zaraguetako ordezkarien lan bilera batzuk egin zituzten Oriorako Sekundarioko eskola bat lortzeko asmoz, Udala bitartekari zela.

Urtetako komunikazio ezak eragindako elkarrenganako mesfidantza gainditu ondoren, denon artean sortu genuen lan-batzordea gauza izan zen adostasunera iristeko zorioneko zentru horren hainbat ezaugarrirritan.

Guretzat bilera haietatik ateratako ondioriek garrantzitsuena hau izan zen: *Oriok dituen baliabide fisiko nahiz giza mailakoak izanda, guztiz bideragarria dela proiektu amankomun bat bi ikastetxeen nahia eta beharrak asetuko lituzkeena. Gauzak horrela, Ikastolako orduko zuzendariak "AKORDIO BILERA" izena zeraman dokumentua aurkezu zuen lana ahalik eta modu egokienean bideratzeko, abiapuntu gisa, bi ikastetxeetako, guraso, irakasle, eta batzordeek... txostenaz aztertu eta eztaba idatzi ondoren, bertan proposatzen ziren puntu bakoitzari buruz beren iritzia eman zezaten.*

Uztailaren 7an izandako bilieran gure Guraso Asanbladak ez zuen garbi-ikusten proposamenaren 2.

puntu "hezkuntz etapa berriaren autorizazio eta kontzertazio eskaera Ikastolaren titularitzatik egingo da. Ikastetxearen eta Administrazioaren titularitza konpartitua posibilitatuko duen formula garatzen denean, Ikastetxearen muicipalizazioa burutuko da" dioena hain zuzen.

izan ere gehiengoak pentsatzen baitzuen legeak hide ematen zuela Udala izateko zentru horren eskaria egiten zuena eta, beraz, titularra.

Baina joandako urak errota mugitzen ez duenez gero, gatozen gaurko egunera: guretzat gala asko argitu da azken bolada honetan, batez ere Hezkuntza Sailak gure bailaruko "Eskola Mapa" ren proposamena kaleratu zuenez geroztik. Orain garbi ikusten dugu D.B.H.ko zentru hori lortzeko dagoen bide bakarra Ikastolaren titularitzatik egin behar dela, eta municipalizazioa nahiz eta oso present eduki, oraingoz behintzat, eta Administrazioak borondate politikoa azaltzen ez duen bitartean, helburu gisa eduki beharko dugula.

Egia da azken hilabeteotan izandako etenaldiak udara aurretikako giroa dexente nahastu eta egoera zaildu baino ez duela egin, eta Ikastola hasierakoa ez den beste bide baterik ibili dela. Sekundaria beraientzat bakarrik lortzeko. Baino gertakizun hauetan denok gara errudun inkomunikazio eta egoskorkeriaren dinamikan behin eta berriro erori garelako. Ezin dugu horrela jarraitu, jokoan dagoena ez

baita bakar batzuen edo besteen sinismen edota filosofia, guzion seme-alaben etorkizuna baizik, eta horrek berak nahikoa izan beharko luke izandako liskarrak ahaztu eta elkarlanari berriro ekiteko.

Herriko guraso guztioi gara lehenik eta behin guzti honetaz kontzientzia hartu behar dugunok, horretarako nork bere ikastetxeen prozesu honetaz informazioa jaso eta erabakietan parte hartzen saiatuz. Irakasleak ere hortxe dauzkagu: heziketa lanaren protagonista garrantzitsuak dira eta beraien ere gai honetaz zeresana izango dute. Ez litzateke batere galzki egongo beren jarrera zein den jakin eta ahalik eta adostasun handiena lortzea denon artean.

Bukarzeko gogora ekarri Udalak joan den abenduaren 29ko plenoan hartutako erabakia. Horrek ere animoak eman behar dizkigu proiektu amankomun horretan sinisten dugunoi tingo eta aurrera begira lanean jarraitzeko.

Oriostarrok erronka polita daukagu oraingo hau herri bezala jokatzen badakigula erakusteko. Elkarritzeta, akordio eta adostasunaren bideak urratzen ikasten ez badugu, alfer-alferrik arituko gara beste maila bateko arazoak konpondu nahian,

ZARAGUETA ESKOLA PUBLIKO  
GURASO BATZORDEA



## Iñaki Garate

Aseguru-agentea

Aita Lertxundi 15, 2. ezk. Orio Telefonoa: 83 11 49

C C L  
CARASA, CILVETI, LACORT Y CIA, S.A.

Aseguruak

**G O I Z E K**  
Aita Lertxundi, 33      \* KAFETEGIA  
Telefonoa: 83 28 55      \* IZOZKIAK  
                              \* CROISSANTEGIA  
                               pasteleriko  
                               enkarguak  
                               hartzen dira

**ONITZ**  
Oinetakoak ☎ 830089

**ALTXERRI**  
Jatetxea  
Telefonoa: 83 07 62

# Nori jarriko zenioke ikatza aurten?

*Gabonak pasatu eta Errege Eguna dugu eta, egun honekin lotuta, galdera hau egitea bururatu zaigu: Errege izango bazina nori jarriko zenioke ikatza aurten? Badirudi jende askok merezi duela, baina aukeratzekoan honakoak esan dituzte galdetutakoek.*



IRENE AIZPURUA  
18 urte

Nik, egia esan, ikatza Peruko umeci laguntza emateko egin zen erakusketa-salmenta zegoela jaka, bertara hurreratu ez zirenei jarriko nieke.



PATXI ETXEBERRIA  
59 urte

Jende askori, baina berreziki, festetan Aita Lertxundi kalean gauzak puskatzen ibili eta, atentzia deitu ondoren zahartzat hartuz, parre egiten diguten horiei.

XABIER URANGA  
14 urte

Ia denei jarriko nieke ikatza, baina bereziki nere etxeko Erregeei erregalo gutxi ekartzen dizkidatela.



M. DOLORES  
URRETABIZKAI  
49 urte

Nik aurten bolantak era-biltzea admititzen dutenei jarriko nieke, Orion arrantzatik bizi behar dugulako eta bolantek, azken finean, kalte handia egiten diote herriari.



## Orioko Ogia



IPARRAGIRRE  
AUTOZERBITZUA  
Oa kalea, 5 Tfnoa: 83 17 15



Haurrentzako oinetakoak  
San Nikolas 9, behe  
Tfnoa: 83 28 05

## LIZASO

ERLOJU eta  
BITXI DENDA

Kala, 3 Tfnoa: 83 10 30

URANGA  
BURDINDEGIA  
EUSKO GUDARI 7  
Tfnoa: 83 12 36



## Eskolari buruzko pleno beroa

Abenduaren 29an izandako ohizko plenoan, datoaren urtean Orion Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ezartzeko aukenak edo baliabideak eztabaidatu ziren.

Aretoa jendez gainetik zegoen eta plenoa ondoren erdiko atzerapenarekin hasi zen. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzari buruzko puntuak eztabaidatzeko ordua iritsi zenean EAJ-k, EAk eta HBk bere proposamenak aurkeztu zituzten. Ondoren aretoan zegoen jendea euren iritziak azaltzen hasi zen eta zenbait momentutan oso tensio handia izan zen, hitz gogor askoak ere bai tarteka.

Azkenean bozketa egiteko garaian hiru proposamen zeuden, EAJ-rena, Jose Miguel Leundak eta HBk aurkeztutakoa eta Arriolak aurkeztu zuena EArén izanean.

Botorik gehien lortu zuen proposamena, bost boko, J. M. Leundak aurkeztutakoa izan zen. Hona hemen proposamen horren lau puntuak:

– Hezkuntzako Ordezkaritzari Zaraguetak soberan daukan gelak eskatzea.

– Erantzuna ezezkoa bada, urtarrilaren 22an ezohizko plenoa egingo da irtenbiderik egokiena bilatzeko.

– Udala bitartekari izango da Zaragueta eta Herri Ikastolaren artean.

– Udalaren helburua hezkuntzari dagokionean, Orioko bi eskolen municipalizazioa izango da.

## Erregeen etorrerarekin Gabonei agur esateko ordua heldu da

Gabonak giro onean ospatzeko, abenduaren 20an Musika Eskolako haurrek 'tonua' eman zuten kontzertu bat eskainiz kalean. 22an Iñaki Linazasorok hartu zuen erreleboa 'Euskal Herriko Eguberriak' hitzaldiarekin.

Abenduaren 24an, berriz, Ouentzero ibili zen, kalez kale, gure herrian barrena. Goizean, Zaragueta eta Herri Ikastolakoa, eta arratsaldean Gestore-takoa eta Sofbolekoa. Egun horretan bertan, Talai-Mendik antolatzen duen *Gabon kantu, Jantzi eta Jaiotza* lehiaketa izan zen. Irabazleak Manex eta Itziar Barrenetxea, Lander Sarasola eta Joseba eta Ainara Oliden izan ziren. Bigarrenak, berriz, Iban Ruiz eta Xabier Iribar. Azkenik, hirugarren postuan Zigor Esoain, Ainhoa eta Alex Mateos eta Mireia Esnal geratu ziren. Sarituek, diruaz aparte Talai-Mendik antolatutako irteera guztiak doan izango dituzte.


Abenduaren 30ean, I. Gabonetako parkea izan zen haur eta gazteentzat frontoian.

Urtarrilaren 13an arratsaldeko zortzietan 'Polonaise' soka-laukoteak kontzertu bat eskainiko du elizan. Kontzertu hau Kultura Batzordeak antolatutako 'Gabonak 95' kultur programazioaren azken ekitaldia izango da.

**GURE TXOKO**

**TABERNA**

ARITZAGA KALEA



**ORTZAIKA**

**JATETXEA**

- \* Bataioak      \* Despedidak
- \* Jaunartzeak      \* Ezkontzak

Tfnoa: 83 32 51 / 83 30 46 Ortzaika

## Lau arraunlari TVE1eko lehiaketa


Xanti Zabaleta, Alex Korta, Igor Ostolaza eta Igon Lertxundik milioi bat pezeta irabazi zuten TVE1eko lehiaketa batean abenduaren 23an. "Muchas Gracias" izena du lehiaketak eta egimbeharreko txistea kontatzea zuten. Hiru minututan zeinuk txistea hobeak kontatu zen lehia. Publikoak erabaki zuen txistea ona zen ala ez eta 12-11 irabazi zuten andaluziarren aurka.

### Gallastegiren argazki erakusketa Salatxon 26a arte

Urtekolehenen egunetik 26a arte Juana Mari Gallastegiren argazkiak daude ikusgai Salatxo taberman.

Juana M. Gallastegi argazkilari ezagunak erakusketa ugari egin ditu estatuko hainbat tokitan zein atzerian.

Adituek diotenez Gallastegik bere argazkietan erakusten duena ez da bakarrrik begibistan dagoena, baino ziketa ezkutuan geratzen den guzti hori ere bai.



## Eskaparate lehiaketa sariak Oriogi eta Kuttunentzat

Oriogik eskaparate lehiaketa eta Kuttunek publikoak bozkatzen duen atalean irabazi dute. 128 partaide izan dira guztira eskaparate lehiaketa honetan eta erdik baino gehiago probintziakoak izan dira, eta gainontzeakoak, aldiz, Donostia bertakoak. 1987tik egiten da lehiaketa hau eta ez da lehen aldia Oriogik irabazten duena, Jon Ander Belokik behin eta berriro harritzen baikaitu bere trebeziarekin. Irabazleek plaka eta diplomaz gain 100.000 pezetako diru saria lortu dute. Lehenengo hiru sariak juraduak erabakitzetan ditu, baina, bida beste atal bat ere "Herrikoia" deitzen zaiona. "Herrikoia" izeneko atal honetan herritarren botuen bidez aukeratzen da irabazlea. Atal honetan irabazi du Kuttunek lehen saria.

### ZUMINTZA

- Heapaindegia - Estetika  
- Depilazioa - Sauna

Tfnoa: 83 17 56

R A M I R O

Telefaxa: 83 10 48



K2

### OLIDEN HARATEGIA

EUSKO GUDARI,2  
TFNOA 83 10 86

IL GEBATO

Etxeko helatuak  
eta kruasanak

San Nikolast 17 TFNOA 131747


**JOSEBA LACADENA eta  
Luis Cisneros en  
erakusketa**

Joseba Lacadenaren arte-lanak ikusgai daude Erromako erakusketa batean, Donostiako Artelekuko beste 9 artista gazterenekin batetan. Urtarilaren 23tik otsailaren 12ra arte Madrilgo Arte Ederretako Zirkuluan izango da erakusketa. Ondoren, berriz, Parisen.

Luis Cisnerosek, berriz, hamalau lan dauzka ikusgai Zarauzko 'Zazpi' taberman,

**Ainhoa Iribar eta  
Audra Almanaitze  
Cantemus Koroan**

Ainhoa Iribar oriotarrak eta Orion bizi den Audra Almanaitze lituaniarrak emakumezko kamarako 'Cantemus' koroan abesten dute, Javi Bustoren zuzendaritzapean. Orain arte bost kontzertu eman dituzte, Beasain Donostia, Madril, Cuenca eta Valladolidean. Bestalde, Koro Easoren Gabonak izeneko diska kalera-tu da. Bertan, Antonio Campos eta Deinetriko Mantero-lak parte hartzen dute.



## **Arrantzako aurtenko kanpaina iazkoa baino hobea izan da**

Aurten jaz baino gehiago harrapatu ezezik, ez da istilurik izan pelajikoak zirela eta ez zirela, beraz kanpaina hobea izan da alde guztietatik.

Antxoari dagokionez 1.500.000 kilo harrapatu dituzte eta bataz besteko prezioa 290 pezetakoa izan da.

Hemen, Azores irleton eta hegoaldean 1.100.000 kilo atun harrapatu dituzte, eta egin dieten bataz besteko prezioa 342 pezetakoa izan da. Dena den, esan beharra dago zorte desberdina izan dutela Azores irleton eta hegoaldean egon direnak. Lehenengoak harrapaketa onak izan dituzten bitartean besteek patrikarako justu justu egin dute.

**AJTZONDO**

**83 27 00**

**JATETXEA**

**KOLON TXIKI**

\* PINTXOAK \* KAXUELITAK  
\* EGUNeko MENUA

**83 00 44/13 20 26**

**Herriko plaza, 4**

**TALAI**

**AHOLKULARIAK, S.L.**

**A S E S O R I A  
F I S K A L A , L A B O R A L A ,  
J U R I D I K O A , K O N T A B L E A**

**Iñaki Olariaga Larrañaga**

**Eusko Gudari, 50-B-1.E  
Tfnoa.-Faxa: 13 37 20**

## Harribil izena jarri diote dantza taldeari

Iaz sortutako herriko dantza taldeari Harribil izena jarri diote, oraindik ofiziala ez bada ere, eta federatzeko tramiteten dabil.

Norbaitek dantzariek ezkontzaren batcan dantza egitea nahiko balu, ez da ezer kobraturiko, baina borondatza onartuko da.

Hogeita hamar bat lagunek osatzen duten taldeak San Pedrotan izango du aurkezpen ofiziala eta bertan sorpresa bat izango da.

## Kepak Tolosako odolki lehiaketa irabazi du

Kepa Loidik Beasaingo odolki lehiaketa irabazi ondoren, abenduaren 23an Tolosan izandako VII. odolki lehiaketa ere irabazi du. Enkarguak estatuko hainbat lekutatik eta baita Alemaniaiotik ere alegatu zaizkio.

Bestetik Patxi Larrañaga zarautzarrak, Ana Rosa Iparragirreko senarrak, Santo Tomaseko txistorra lehiaketa irabazi zuen Donostian, Patxik eta Ana Rosak Lasarten harategi bat daukate, eta eskaparate lehiaketan ere saria irabazi dute.



## Xabier Sukia eta Nere Manterola literatur lehiaketaren irabazleak

Abenduaren 23an banatu ziren Euskara Batzordeak urtero antolatzen duen 'Euskaraz Gazte' literatur lehiaketaren sariak.

Bertso sailean Xabier Sukia izan zen nagusi, lehenengo eta hirugarren sariak eskuratu baitzituen. Bigarren saria hutsik geratu zen epaimahaiak aurkeztutako bertsoen kalitate eskasa aipatu nahi izan zuelako, nahiz eta azpimarratu saria jaso zutenak maila onekoak izan zirela. Laugarren saria Ibai Esoainek irabazi zuen.

Ipuinen atalean Nere Manterola izan zen irabazole, bigarren saria Itziar Urretabizkaiak jaso zuen, hirugarrena Jokin Salsamendik eta laugarrena Alazne Goenagak. Hurrengo zenbakian KARKARAK lan guzti hauek argitaratuko ditu.



Denda Telefona: 13 10 88

Almazena Tfnoa: 13 25 33 Faxa: 83 57 01

◆ MOTA GUZTIETAKO ZERAMIKAK

◆ SUKALDE EKONOMIKOAK


**ORIO**

Auto Eskola

Telefona: 83 57 19

**ERRUSTA**

Kriston  
bokadillok!!



*KoastA*

*Lasaitasuna eta giro ona*

## Erremonteko txapelketa bat bukatu eta bestea hasi

Abenduan Gipuzkoako Txapelketa bukatu zen eta hil honetan Euskadiko Promesa Txapelketa hasiko da. Bertan herriko bikote hauek hartuko dute parte: Osa-Itxaso, Brit-Etxeberria, Agirresarobe-Gaztelu eta Ziganda-Iribar. Ziganda eta Gaztelu azpeitiarrak dira.

## Hiru judoka Euskadiko Sanboko txapeldun

Iker Ostolaza, Xabier Urkizu eta Ibai Peñak Euskadiko Sanbo Txapelketa irabazi zuten Oiartzunen.

Hiru judoka hauek ez dute normalean sanbo egiten, baina oso antzeko kirolak direnez ez zuten arazo handirik izan txapeldun gerazekoa. Bestalde, Iker Ostolaza Jugoslavia ohian izan da Nazioarteko Unibertsitateko Sanbo Txapelketan, zoritzarrez jokautako bi probetarik biak galdu zituen.



## Saskibaloikoak behetik gora

Oriogi saskibalo taldeak hasiera txarra eman bazion ere bigarren erregionalean jokatzen ari diren ligari, gora egin dute azken partiduetan. Orain arte bederatzi partidu jokatu dituzte, horietatik lau irabaziz. Orain sailkapenaren erdialdean daude.

Festetan, Oriogi Taldeak, Aramaioko Saskibalo Taldearen aurka adiskidan-tzazko partidua jokatu zuen, eta atsedenerako 'canasta del millón' antolatu zuen. Partehartzaileak bertan bildutako guztien artean egindako zozketa baten bidez aukeratu ziren. Hasieran tiro libre puntutik jaunti behar zuten baloia, eta hortik sartuz gero txanpan botila irabazten zen, tripletik sartuz gero Oriogik oparitutako tarta eta zelai erditik sartzen zuenak, berriz, afari bat. Imanol Lizasok txanpaña eta tarta irabazi zituen, eta inork ez zuen afaria irabazi. Oriotarrek hiru puntuz galdu zuten partidua, baina Aramaiokoekin ondoren egindako afarian penak goxatu zituzten.

**PATXI**  
HARRETEGIA

Telfonoa: 83 18 37

**M M** 18-25 urte  
bitarte-  
koentzat  
prezio  
bereziak  
**ORRAZKERAK**  
Telfonoa: 83 12 61

URAITZ  
LURRINDEGIA  
KIROMASAIA ESTHETICIEN  
ENDIAIA 3 Telfonoa: 83 18 97

**Eugenio  
Garmendia**

KONTSEILARITZA

Telfnoa: 83 44 66

**SARASUA ERRETEGIA**

Berezitasunak: — Arrain zopa

— Arrain eta haragi erreak

Eusko Gudari 29

Telfnoa: 83 00 05  
17 25 32

## Futbitokoek bosgarren bukatu dute

Abenduan Futbitoko liga bukatu zen eta Oriokoak, bosgarren postuan sailkatu direnez, koparen antzekoa den Udaberriko Torneo jokatuko dute, urtarrilaren 13tik apirilera arte.

## Futboleko balantza

Preferente mailan hamabost jardunaldi egin ondoren hemezortzi ekipoen artean hamaikagarren doaz. Jubenil lehenengo mailakoek hamalau partidu jokatu dituzte eta hamahirugarren doaz. Kadete bigarren mailakoak taularen erdi-erdian daude, laugarren postuan baitaude, hamaika partidu jokatu ondoren.

## Imanolentzako aginaldoa

Imanolek Rayo Vallecanoari sartutako golari esker honako sariak jaño ditu: Orio Biberoek emandako kilo bat almeja eta bixigua, Oriogiko tarta bat, Kepak emandako bi txuleta eta Atxegaren kaja bat ardo.



## Giro ezin hobea Jose Mari Alberdi IV. Krossean

Orioko Taldekoa den Juan Mari Garin zizurkildarra (30' 29") eta Isabel Eizmendi (18' 17") izan ziren senior mailan irabazle Kirol Antolakuntzetaarako Korniteak abenduaren 17an antolatutako Jose Mari Alberdi IV. Krossean.

Primerako eguraldia lagun zutela 400 korrikalari baino gehiagok parte hartu zuten, eta hauetatik sei oriottarrak izan ziren: Ander Errasti, Luis Jimenez eta Araitz Aranzasti alebinetan, infatiletan Sergio Alonso, eta senior mailan Juan Anjel Alguacil eta Miguel Herasaluze.

Alguacilek ezin izan zuen jazko bigarren postua berdindu eta seigarren iritsi zen 32' 03" denborarekin.

## URBAZTER

Aseguru eta bidai agentzia

San Nikolas kalea, 8

13 33 14

## GABON

Plater konbinatuak,  
pintxoak...

Telefonia: 83 06 09

**Goxoki**  
Gozotegi-Kafetegia  
AZKUE

Eusko Gudari, 33 Tfnoa: 83 39 20

## ANARR /

kirola egiteko eta denbora librerako  
arropa eta ekipamenduak  
Tfnoa: 83 21 60

**MAPFRE, S.A.  
ASEGURUAK**

Eusko Gudari 50 B-1.E  
Telefonia: 13 37 20

# "Espainiako txapeldunak izan gara eta jendea ez da enteratu"

Iñigo Salaberria, Kimetz Uranga, Iñigo Moreno, Eneko Salsamendi eta Joseba Unanue Usurbilgo eskubaloit taldean dabilta. Bostea elkarriketa ezin egin eta, Iñigo Salaberriarekin hitz egin dugu, hau guztien ordezkarri gisa hartuz.

Noiztik zabilta eskubaloian?

Txiki txikitik. Ikastolan hasi benjaminetan, 3. edo 4. mailan, eta hortik aurrera. Orduan kirol guztiak egiten genituen, eta gero eskubaloian jarraitu nahi izan nuen. Futbola igual gehiago gustatzen zitzaidan, baina 8. mailara iristean kirol bat aukeratzen duzu. Nik, futbola gustatu arren, eskubaloian talde ona geneukala ikusita, eta Usurbilera joaten baginen ekipoa polita osatuko genuela esan zigutenez, eskubaloia aukeratu nuen ilusio horrek.

Arrate eskubaloit taldekoek ez al zizuten eskaintza ona egin?

Bai, 8. mailan geundela Orioko ekipoa Gipuzkoako txapelketan zebilen eta Eibarrera joan ginen jokatzen. Iñigo Morenok eta nik ondo jokatu genuen eta Arratera joan nahi baguen eskola pagatuko zigutela esan ziguten. Adin horretan Eibarrera



joatea bizitzera oso fuertea zen guretzat, eta azkenean, esan ziguten onak baldin baginen gero ere aukera izango genuela eta Usurbilera jarritzeko.

Kontaguzu nola zabiltaen, zein mailatan...

Euskadiko Ligako jubeniletan gabiltza. Bi liga daude, bata Gipuzkoakoa eta guhorren gainetik gaude, Euskadikoan. Azkena geratuz gero Gipuzkoakora jeitsiko ginateke. Orioko gehienak lehen urtekoak gara, jubeniletan bi urte egiten baitira. Euskadiko ligan lehenengo hiru postuetan geratzen direnek Espainiako Txapelketa jokatzen dute, eta besteek Gipuzkoako Kopa. Euskadiko Ligak orain lehenak goaz.

Zenbat aldiz izan zara se-

lekzionatua?

Lehenengo aldiz ikastolan nenbilenean, Orioko ekipoa guztia izan zen selekzionatua Urolarako. Hurrengo urtean Euskadiko Selekziorako korbokatua izan mintzen, eta Gipuzkoakora ere joan mintzen. Aurtent, berriz, Euskadiko Selekziorako korbokatu naute.

Eskubaloian adituak Iñigo Moreno eta zu jokalari 'promesa' zaretela diote. Zer diozu?

Niri ez zait iruditzen hori horrela denik. Eskubaloian selekziola joatea beste kiroletan baino errezagoa da. Futbolean adibidez milaka lagun dabil eta oso zaila da selekzionatua izatea. Eskubaloian jende gutxiago dago eta errezagoa da. Orioko guztiak gaude selekzioaren in-

guruan, salto txiki bat ematen ari gara. Baina promesa garela esatea gehiegi dela uste dut. Aurrerago ikusi beharko da.

Erreza da ikasketak eta eskubaloia, biak batera eramatea?

Nik orain arte ez dut arazorik izan. Eskubaloia ordu asko eskatzen ditu, eta dena ondo antolatzen baduzu biak ondo eraman daitezke.

Nola ikusten duzu eskubaloia, bizitza hortik ateratzea posible al da?

Ez. Badakit bizitza ez du dala eskubaloitik aterako. Bakarren batzuk bizi dira hortik eta oso zaila da zu gutxi horien artean egotea. Eskubaloitik egunerako dirua ateratzea badagoela esaten dute, ez futbolean bezala, bi denboraldi egin eta bizitza guztia egina duzu.

Herrian nagusi arrauna eta futbola izanda, ez al zaizu iruditzen eskubaloia bigarren mailan geratzen dela?

Hori da arazoa, eskubaloia horren baju egonda nahiz eta zu talde on batera joan, jendea ez da konturatzen zer-bait importanteen egin duzula. Elgorriagara edo iritsiko bagina orduan izango ginateke importanteak, baina bidean gabiltzanean edo bidean geratzen bagara jendeak ez gaitu baloratuko. Futbolean ibiliko bagina eta Selekzioan izan, honezkero jende asko enteratu eta norbait izango ginen. Espainiako Txapeldun izan gara eta hala ere jendea ez da enteratu.

# Zine-Kritika

## Two Much

**Zuzendaria:** Fernando Trueba

**Aktoreak:** Antonio Banderas, Melanie Griffith, Daryl Hannah

**Aretoa:** Astoria I. Petit Casino I

Urte asko igaro behar izan ditu Fernando Truebak bere ametsa egia bihurtzeko: Estatu Batuetan filme bat egi-tea. Azkenean lortu du eta amadio nahasiz jositako komedia batekin eterri zaigu, beretzat maisu den Billy Wilder-en estiloa jarraituz egina. Filme hau Art Doggek (Antonio Banderas) arte galeria baten jabe denak, Betty (Melanie Griffith) ize-neko emakume diruduna ezagutzean hasten da. Bi astekin pasa ondoren, azken hau zeharo maitemin-



tzen da eta bien arteko ezkontza prestatzen hasten da. Bainha hori Art-i ez zaio gustatzen, Betty-ren ahizpa (Daryl Hannah) maite baitu. Arazo horretatik airoso ate-ra ahal izateko, anaiak biki bat duela esango du: Bart (Antonio Banderas, nor bestela?) Bainha guzti honek, ohizkoak den bezala, ez diz-

kio arazoak konponduko, nahastu baizik.

Istorio honen gidoia Fernando Truebak berak eta bere anaia David-ek idatzit dute, Donald Westlake-ren nobela batetan oinarrituta. Jim-bira guztiak, Miamiko giro epelean gertatzen dira erritmo latinoaren inguruan. Esan beharra dago ez dela batere

berrikuntzarik ageri pelikula honetan eta momentu batzuetan aspergarria ere bihurtzen dela. Dena ez dut txarra ordea, barre egiteko sekuentzia on batzuk baditu. Bainha pelikulako gauzarik aipagarriena, dudarik gabe, bigarren mailako aktoreak dira: Danny Aiello, Eli Wallach, Gabino Diego-eta, niretzat oso berezia den Joan Cusack. Lehen mailako pertsonaietan, berriz, ondoko hauek aurkitzen dira: piskanaka hobetuz doan Melanie Griffith, oso ondo ari den Daryl Hannah eta Antonio Banderas. Pelikula honen grabaketan ezagutu ziren gainera Banderas eta Griffith, ez da oso datu interesgarria baina orain nola modan dauden... Jende asko ari da hurbiltzen zine aretoetara pelikula hau ikustera, baina edozer gauzagatik ezin baduzue joan, ez larritu, ez durue aparteko-ezer galtzen.

	Egin	Egunkaria	D.V.	KARKARA
<i>Two Much</i> Zuz: Fernando Trueba	★	-	★★★	★★
<i>Saints</i> Zuz: Wayne Wang	★★★★	★★★★	★★★★	★★★★
<i>Pocahontas</i> Zuz: Disney	★★★	★★	★★★	★★
<i>Nueve meses</i> Zuz: Cibrian Columbus	★	-	-	★★
<i>El presidente y M. Wards</i> Zuz: Rob Reiner	★	-	★★★	★★

★ txarra      ★★ eskasa

★★★ balekoa

★★★★ ona

★★★★★ bikaina

● ITZIAR URRETABIZKIA ●

# Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza Orion



**JOSE MIGEL  
MAKAZAGA  
ORIOKO ALKATEA**

Udalak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren lorprena lehen mailako helburutzat jo du. Izan ere, azken hau teskundeetan lehiatu ginene alderdi politiko guztiok, era berezian azpimarratu genuen gaia izan zen. Hori dela eta, jarrera pertsonalak alde batera utziz, korporatibook Bigarren Hezkuntza indartsua lortzeko elkartu gara.

Ikuspegi objetivo, praktiko eta ekonomiko batetik, ezin dezake inork uka, Bigarrena lortzeko ahalmena duen Zentro edo ikastetxe bakarra Orioko Herri Ikastola dela.

Hauei argitu ondoren, bete beharrekoas den Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzak Orioko seme-alaba guztiene eskubideak bete behar dituela adieraztea komenigarria eta beharrezkoa da. Horregatik, Udalean ahalegin guztiak egin beharko ditugu Ikastegi eta Hezkuntza Delegaritzarekin lankidetza estuan, edozein oriotarrek Orion lehen eta bigarren hezkuntza kurtsatzeko posibilitatea izan dezan. Horretarako premia-

zkoak diren gune fisikoak ahalbidetzen dituzten bi eraikuntza ederren jabe gara. Hauek erabiliz, bestelako etengabeko funtzionamendu eta mantenimendu gastuak itzuriko ditugu.

Nik neuk uste dut, hezkuntza on batetik bere ingurugiro naturalean, biztanlegoaren herriarekiko lotura estuagoa lortzen duela eta "gure nortasunaren ezaugarriei cuesta" oso balore positibotzat jotzen dut.

Dena dela, Oriok D.B.H. lortzea guztiiz beharrezkoa badu ere, saiatu behar dugu adiskidetasun giro batean eta erarik ekonomikoenean izan dadin. Jasankortasuna eta elkar alertzeak eguneroko jarrera izan behar dute.

Oriotarra izanik, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza indartsua izateak benetan kezkatzen nau. Horretarako

Aiarekin lan egin behar dugu beren seme-alabek Orion egin dezaten Bigarrena. Izan ere, elkartuz gero, denoi etorkizun lasaigarria bermatzen zaigu.

Azpimarratu behar da, Orioko Udal, Ikastola egungo eraikuntzan kokatu zenez gerotik behintzat, bai Ikastola eta bai Zaragueta Ikastetxeko mantenimendu guztiene jabe egin dela. Hau horrela izan da, kontuan izan delako oriotarren hezkuntza funtzio publikoa dela eta hau bi ikastegiek betetzen dutela.

Lerro gutxi hauetan ez daukat Orioko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzari buruzko xehetasun gehiago emateko lekurik. Argi dago nire iritzia helburu hau lortzean datzala. Era berean, Orion baimena eta bilketa ahalmena Ikastolak du. Egiazki, hau da, bai oriotarrei, bai aiarrei ere, nahiz San Pedro auzokoei nahiz herri bertakoei, ikasketak burutzeko ahalmena eskaintzen dien ikastegia. Horretarako, herrian ditugun bi eraikuntzak erabili beharko ditu,



## Emakumezkoen Gipuzkoako pelota txapelketan aiarra nagusi

Abenduaren 16an jokatu ziren Hernanin Gipuzkoako pelota txapelketako finalak. Emakumezkoen artean, Altzatarra eta Orioko Arraun Elkarteko bikoiteak aritu ziren aurrez-aurre. Orioko klubaren izenean jokatu zuten Astigarraga-koko Susana Aurkia eta Aiako Eli Lasa izan ziren irabazleak (30-27) eta, beraz, txapela etxera ekarri zuten.

### KANUA JATETXEA

*Hamaiketakoak,  
bazkariak eta  
afariak egiteko  
kategoriko lekua*

**83 43 22**



**ITURRIOZENA**  
**Urte berri on-on  
izan dezazuela**

Tfnoa: 83 42 72

### ALUSTIZA AUTOBUSAK

Autobus litera eta 16, 36 eta 56 plazakoak  
Bidalatu eta ezkontzeta edo sagardotegira joateko

**13 28 93 / 83 08 80 mugikorra: 908-77 37 67**

Zelai eta Izetaren  
arteko norgehiagoka

Abenduaren 10ean Ge-  
txon Zetai eta Izeta harrija-  
sotzaileak lehian aritu ziren  
125 kiloko harri kubikoare-  
kin, bost minutuko saio bakar-  
rean eta biak batera ekinez  
lanari. Prueba oso parekatua  
izan zen, baina azkenean  
maillabiarak 34 aldiz jaso  
zuen harria, ordurarte Izetak  
zuen marka (33 jasoaldiko)  
hautsiz. Izetak 32 jasoaldi  
egin zituen. Dena den, hiru  
egun beranduago Izeta biga-  
rrenak saio bikaina egin zuen  
Urretxun Santa Luzia egunean,  
22 aldiz jaso baitzuen  
125 kiloko harri kubikoak hiru  
minutuko saio bakarrean.  
Zetaik orain dela pi urte lor-  
tutako marka (21 jasoaldi)  
gaindituz.

Bestalde, Landarbidek 10  
aldiz jaso zuen 200 kiloko  
errektangularra bost minu-  
tuko bi txandatuan. Gustora  
azaldu zen markarekin, eta  
gaineratu zuen erreferentzi  
ona zela otsalean Endañeta-  
ren aurka izango duen nor-  
gehiagokaren aurrean.

## Aiako baserri, eliza eta ermiten historia

Abenduaren 27 eta 28an, herriko Kultur-Etxean "Elizak eta ermitak" eta "Baserriak" izeneko bi hitzaldi eskaini ziren. Hauek azken hilabeteotan Aiako Udalaren ekimenez egin den lan baten emaitza izan dira. Jose Luis Iturburu argazkilariak eta Alberto Santana historiagileak Aiako baserri, ermita, eliza eta paisaiari ateratako argazkiak aurkeztu eta azalpen historikoa eman zuten.

**IDOIA ZARAUTZ**

Pasa dira, dagoeneko, hilabete batzuk Aiako Udalari mota honetako lan bat egiteko ideia bururatu zitzazionean. Hasiera batean asmoa, Udaletxeko artxiborako baserrien argazki batzuk ateratzea besterik ez bazen ere, azkenean lan honi zabaltsun handiagoa ematea pentsatu zuten.

Juan Carlos Zuloaga herriko alkatearen esanetan, egin den lan honek baserrietako artxibo bat edukitzeko balio izan du eta, era berean, herria kanpnan ezagutarazteko bide bat izango da. "Lanen aurreko joan garen heinean eta argazkien kalitatea ikusirik, baserriei argazkiak ateratzeaz gain, Aian interesgarria eta berezia iruditu zaigun guztiari atera zaio argazkia. Guztira 1.800 ar-

gazki diapositibetan, eta oso kalitate onekoak".

Martxoan ezkerotik ibili dira lan honetan, Jose Luis Iturburu argazkilari afizionatua eta Jose Mari Aientza Aiako alguazila.

Bailaraz bailara, eta baserriz baserri, Aiako 216 baserrieta iritsi dira lan hau egitera. Baserrieta iristeaz gain, Aian dauden eliza eta ermita guztiak ere ongi czagutzeko aukera izan dute. Aldi berean, baserrieta lanerako erabilten zituzten lantresna zaharrak edota sakalde bitxiak, ikuiluak eta barreko kontutan izan dituzte.

Eliza eta ermitetan egin den lana ere oso interesgarria eta balio handikoa izan da. Eliza eta ermita ugarietan ongi agertu da Aiako herriak duen nortasun eta aberastasuna.

Lan honek eman dituen



emaitzekin, berehala gozatzeko aukera izan du herritarrek. Hilabete hauetan ateratzen diren argazki guzti horietatik aukeraketa bat egin da, eta erakusketa bat zabalik egon da Kultur-Etxean urtarrilaren bata arte.

Alkatearen ustez, egin den lan honekin, eskuartearen dokumentu garrantzitsua edukitzeari lortu dute. "Horrelako lan bat egia eta gero, haínbot erabilpen ematea gustatuko litzai guke. Alde batetik, baserritarri bere baserriko argazkien kopiatu ateratzeko aukera emango zaio, eta bestetik noiz edonoiz Aiari bioruz ezer publikatu edo libururen bat argitaratu nahi badugu."

"Orain daikagun argazki bilduma hau oso baliogarría izango litzai guke. Bestalde, turismoari dagokionean, lan honek herriaren irudia zabalzko balio izango digu."

### **Baserria**

Historian zehar baseria funtsezko elementua izan da Aian, eta oraindik ere horrela dela esan daiteke. Alberto Santana historiagilearen ustez, orain dela 500 urte hasi zen ezagutzen ditugun baserriren historia. Une honetan Auak dauzkan 216 baserriak etapa honen barruan sartu dira.

## **SEGA**

ezkontzak, bataioak,  
jaunartzeak

Tfnoa: 83 07 16 Erreka auzoa

## **ARISTERRAZU**

### **Jatetxea**

Urte berri on opa dizuegu

San Pedro

83 45 21

## **JAUREGI**

Bakailua, legatza, kogotea,  
txuleta, arkumea.  
Etxeko postreak

83 02 15

tzakegu. "Euskal Herri osoan ez dago 500 urte baino gehiago dituen baserriak, 500 urtekoak 200 egon dira, eta Aian bost."

Orain dela 500 urte hasi, eta orain dela 100 urte bitarte eraikiak dira gaur egun Aian ezagutzen ditugun 216 baserriak. Azkenengo 100 urte hauetan, ezin daiteke esan, baserririk eraiki denik. Beritu, handitu, pintatu eta bar egin dira, haina berririk egin ez.

Ez dakigu baserri hauen aurretik zer egen zen, agian txabolak edo bordak. Hala ere Santanaren ustez gure baserrietako sukaldeen azpian oraindik ere aurkituko genituzke baserriaren aurretik, baserri, etxe, txabola edo borda haien aztarnak.

Azken 100 urte hauetan, Aian desagertu diren baserriak asko dira, eta urte gutxitan desagertu daitezkeenak ere asko direla uste du Albertok. "Azkenengo 100 urte hauetan, 60 baserri desagertu dira Aian, baserrien %20a eta, benetan, asko da. XIX. mendean eraikitzen hasi ziren asko, toki txurrenetan eta materialik eskasenekin eraikitakoak dira. Baserri-tarrak industria indartzen hasi zenean nahiko izan zuen herrira jaitsi luer eskas hori lantza baino."

Ezin daiteke esan, Aiako baserriak estilo konkretu batekoak direnik. Aiako ba-

serrien artean zazpi barieta-te aurki ditzakegu. Hala ere guztiek jaso dute kostaldeko eta Tolosaldeko baserrien eragina.

XVI. mendean eraiki-takoak dira, Santanaren ustez, Aiak diauzkan aberats eta ederrenak: "Baserri hauet harlanduez egindakoak ditugu. Batzuek tolare handi bat izaten zuten ia baserriaren zabalera osoan eta, gainera, oso garaikoak zirenarriak sarrerako atearen goikaldean. Nahiko nahar-

mena da garaiko estilo barrokoaren eragina. Honen adibide garbiak dira: Monterola-Erdi, Portu, Golkosetxea eta bax."

XVIII. mendean aldaketa nabarmena ematen da baserriaren egituraren: harria alde batera utzi eta egurrezko lan handiak egiten hasiko dira. 1730-1770 bitartean gutxi gora behera.

XIX. mendearekin bate-rra, ordena, baserriaren etaparik pobreena eta eskasena iritsi zen. Ez ziren terreno

onak gelditzen eraikitzeo eta lurra lantzeko, eta baserriko maizterrek edo jabeek ez zuten diru gehigirik inbertitu nahi izan.

Baserri barruko antolaketa ere denborarekin aldatuz joanda. XVI. mendekoak lehenengo pisuan zuten bizitza, sukaldea, ikulua eta logela bat, hau familia guztia-rentzat izaten zen, eta XIX. mendean logelak goiko pisu-rra pasatu ziren.

## Elizak eta ermitak



San Esteban Eliza

# TXUKUN

Lorazantza

Basotako esplotazioa eta lorralana

Tfnoak: 13 07 69/908-17 93 16

# POR TU ERRETEGIA

✓Despedidak  
✓Bataioak ✓Jaunartzeak  
Santio erreka auzoa  
π 83 57 38

# Antton Sarobe

Kamioi zerbitzua,  
ganadu eta abarretarako

telefona: 83 48 59



## Kanua futbol taldea aurrera doa

Kanua futbol salako taldea emaitza onak lortzen ari da, eta oraindik lehen fasea bukatzeko partiduren bat jokatzeko egon arren, dagoeneko ziurtatuta daukate hurrengo faserako pasea.

Hondartzan ere jokatzen hasi dira, baina emaitzak ez dira onak izan. Dena den, Gabonak pasa ondoren indartsuago egongo direla esan digute eta ez dute itxaropena galdu.

## Eskolako haurrak sarituak

Diputazioko Nekazaritza eta Ingurugiro Sailak zaborrak berziklatu behar direla sensibilizatzeko asmoz txapelketa bat antolatu zuen. Lardizabal Herri Eskolak 'Elbizabor' izeneko jostailu bat egin zuen eta Port Aventurako bidaia bat irabazi du. Saria urtarrilaren San egingo den jaialdi batean jasoko dute.

# Aiako udalak Urte berri zoriontsua opa dizue aiar guztioi



*Orio eta Orio-Canaveseko alkateek bi herrien arteko adiskidonza-agiria sinatu zuten abenduaren 10ean*

# San Nikolasak

Aurtengo San Nikolasak bete-betearik izan ditugu. Batetik Italiako Orio-Canaveseko lagunak eterri zitzazkigun, bestetik arraunlariek aurten irabazitako banderen bedeinkazioaren festa izan genuen. Gainera, eguraldi onak lagunduta, giro ederra izan genuen herrian sekula izan ditugun festarik luzeenetan.



*Italiarren eta orioarren joia alaitzera Getariako Bandakoak eterri zitzazkigun*

Abenduaren 7an egin zen bazkari herrikoira jende gutxi hurbildu bazeen ere. II. Bixiguren Errutara, berriz, asko. Goizeko ordubatean mozorro lehiaketaren sariak banatu ziren. Lehenengo saria "Gaur ez deitu" lemapean atera ziren suhiltzaileek eskuratu zuten. Bigarren eskimalak izan ziren eta hirugarren, berriz, beheko argazkian dituzuen "Grease" taldekoak. Orijinaltasunaren saria Olentzerok eta bere lagunek irabazi zuten.



Mozorroetako argazkiak badira ere, aipatzekoak da lehenengo egunean Gozategi taldea jo zuela. Gazte egunean "Peña Atxurrok" omolatutako herri kiroletan "Baldorrak" taldea izan zen nagusi. Egun horretan bertan Oihana Alkortak kitarra emanaldia eskaini zuen plazan.

Abenduaren 9an Solatxo abesbatzaren kontzertua izan zen. Egun horretan gaueko hamabi t'erdietan saloiko dantzen tartea izan zen, eta oso harrera ona izan zuen.

*Bi herrietako alkateek, zinegotziek, arraun taldekoek, eta arraunlariek, harro-harro, auriengoa arraun uzta erakusten digute.*

*Eguerdian 300 bat lagun Oliden jatetxera bidu ziren bozkaltzera. Han Arraun Elkarteak erregalu bana egin zien Jose Luis Korta eta CEPSARI.*

*Arraunlari gaztetxoek, berriz, beste opari bat egin zioten Juanito Miralles.*



*Meza Nagusitik aterata Udaletxera bidean traineruko bi patroiak, Txiki eta Jose Luis, bandera banarekin.*

*Udaletxea inoiz baino ederrago azaldu zitzagun abenduaren 10ean; Korta herrira etorri zenet geroztik, Oriok irabazi dituen 100 banderek edertuta. Udaletxe aurrekaldeko balkoiak ez ziren nahikoan luke bandera guztiak jartzeko eta, alboetan ere, jarri egin behar izan zituzten.*





## Hiru Errege ziren, Mago jakintsuak...

*Horrela dio kantak :Errege, Mago eta Jakintsu gisa aurkezten dizkigu Melchor, Gaspar eta Baltasar. Kantak tradizioari eusten dio baina, tradizio hau, aldatzen joan da menderik mende. Kristau-ebanjelioak ez du erregerik aipatzen Belengo gertaera hartan, ez eta ere hiru zirenik hara joandakoak, ez eta haien izenak. Ekiadetik etorritako Magoak, besterik zehaztu gabe, egin omen zioten mirra, urrea eta intsentsuaren eskeintza Haurrari, Izarraren atzetik joan zirenean.*

● ANA G. DE TXABARRI, NERE MANTEROLA ETA AINARA PEÑA ●

Garai haietan, Mago hauek astrologian adituak ziren apaiz modukoak omen ziren. Horrela bada, Izarra jarraitzea ez zen batere zaila izango beraientzat eta errez ulertzten da benetan jende Jakintsua zela, ikasia eta prestatua, alegia. Mago hauek Errege egitearena hiru mende beranduago asmatu zen, eta baita ere Hiru aipatzearena bere izen eta guzti (beste izenen artean aukera-tuak). Gainera, non sortuak

ziren ere aipatzen da Kristo jaio baino askoz ere lehenagoko salmo bat hartuta oinarri: Tharsis, Arabia eta Saba, hau da, Europa, Asia eta Afrikakoak, ez baitzen Amerika edo Ozeania ezaugutzen orduan.

Hauek dira gure Erregeak, urtero gure etxearen sartzen direnak Jesus haurtxoari egindakoa ume guziei egitera: opariak eskeini. Karkaran gurekin izan dira ume-retsua, atsegin eta maiagarri.

**Maiestate, zer egiten duzue urte osoan egun hauek etorri eta lanean hasi arte?**

*Melchor:* Jende asko dago mundu honetan eta denbora gehiena informeak jasotzen, umeak nola portatzen diren eta horrelako lanetan pasatzen ditugu egunak. Ez pentxa, ez da hain erraza ondo informatuta egotea. Honez gain, daukagun diru nola gastatu behar dugun eztabaidatzentz ere aritzen gara, hau agian ez duzue jaingo bai-

na, Erregeok dirua behar dugu.

**Baina, ez al zarete, bada, Magoak?**

*Baltasar:* Bai, horixe baiez-tz, baina Magoak izatea toki guztietan momentu berean izatea da, hemen Orion, han Erroman edo Belen... Gure magia dena jakiteko, dena ezagutzeko eta etxean itxil-ixilik sartzeko ahalmena besterik ez da. Urte askotan ikasi, zeroak eta hurrak ondo miatu eta gero norberaren burua dela gauzatik ederrena ikusi dugu, aberastasun handiena gure barrenean dagoen guztia ezagutzea eta besteei eskeintzea: maitasuna, umorea... Hori da gure magia. Ezinezkoza zaigu inor aberastea, diru sortzea, gure munduan maitasunak eta ilusioak sortzen du haurrenganako bi-

dea, ez diruak.

### Ez al zaizue nekagarrria egiten hainbeste karta irakurri beharra?

*Gaspar:* Ez, ez, ez. Kartan bidez ume guztia ezaugutzen ditugu, pozgarria da guretzat bakoitzaren abenturak, nahiak, kezkak eta gainontzeoak zuzenean jasitea. Gainera, haurrek, famili osoaren berri ematen digute eta guretzat oso importantea da ikustea umea ez dela bere buruaz bakarrik kezkatzen.

### Aurten ikatz asko enkaratu al duzue?

*Baltasar:* Gutxi ekartzen dugu. Umeentzat ia inoiz ez. Baina, bai, izaten dira batzuk: normalean gaiztakeria helduen gauza izaten da eta, hauei beti ekartzen diegu. Aurten pentsatzen ari gara urtero Jaiotzak txikitzen ari-tzen den tontoluari ekartzea.

### Zer moduz konpontzen zarete Oilentzerorekin?

*Denak batera:* Primeran! Oso ondo. Musean aritzeko bat faltza zitzaigun, lagun bat, eta nere (*Melchorrek*) pareja izaten da. Asko la-



guntzen digu gainera. Bere lana bukatzen duenean gure ondoan jarduten da. Berak esaten digu umeren batek bitan eskatu duela eta erregali gehiegirik ez jartzeko, asko estimatzen dugu bere laguntza.

*Gaspar:* Oso ondo iruditzen zaigu berari ere opariak eskatzea. Hemengo a bera da, Oilentzeroek ekarritako jostaliluekin ibiltzeko denbora gehiago geratzen zaie umetxoei eta, guri, lan pixka bat ere kentzen digu.

**Oilentzero jale eta edale handia da, Orioko kantu batek dioenez, tripa ardoz beteta etortzen omen zarete Kale Nagusitik. Hemen go ohituretara egokitu zarete?**

*Melchor:* Beno, beno, kantuak beti esajeratu egiten du. Egia da urtean behin elkartzen garela, egun alaiak direla... eta jokoan pixkat edaten dugula, baina ez hainbeste. Okerrena erregaliak banatzen ari garenean izaten da: hemen ardo-goxo pixka bat, han anis ttantxa, gero pattarra dela... Maitasun guztia jarriz digute-



la ikusita, itsusia iruditzen zaigu ez hartzea eta gu oso esker onekoak gara.

**Zer nahiago duzue aurkitzea etxeetan, edaria ala janaria?**

*Gaspar:* Hotza egiten duenean kafetxo beroa edo Cola-Cao termoa jarriz gero estimatuko genuke. Egia esan, hainbeste lanarekin ogitarretxoren bat ere ez lizateke txarra. Al eta zaldientzat ura eta azukrea ez ahaztu.

**Zapata bat ala bi jarri behar dira?**

*Baltasar:* Zapata asko, baina garbiak dauden da gehien begiratzen duguna, izan ere behin edo behin zikinas-koak ere ikusi izan ditugu. Bi jartzeagatik ez dugu erregali gehiago jarriko, batez ere famili ugarietan hobe da bana jartzea, bestela sartzeko tokirik ere ez dugu izaten. Al eta amonarengana edo izebarengana norberak berrea eman behar du, bestela ez du balio-eta.

**Zuen artean zein da txintxoena?**

(Denak batera hasten dira bere burua aipatzen eta ez dira ados jartzen) *Gaspar:* Baltasar parranderoena da.

*Baltasar:* Parranderoa bai, baina jatorrenan ere neroni.

*Melchor:* Bainan nik era- man behar izaten zaituztet etxera, ez ahaztu.

**Nork jasotzen ditu karta gehiena?**

*Melchor:* Horretan bai argi dagoela: Baltasarrek, Beno, agian umeekin xamurrena delako, baina honetan ere berak bere buruaren propaganda asko egiten duclako da.

**Orion izandako bitxikeri- ren bat kontatuko al digu- zue?**

*Baltasar:* Uf! Zaila da bat aukeratzea. Behin Iratiren etxera joan ginan eta orain-dik esna zegoen neskatxa nerbioekin. Balkoi hegiatik kantari hasi ginan lo hartu zuen arte... Iratik lo hartu zuen bai, baina Gasparren ahots indartsuarekin Joseba, Ainhoa, Mikel, Ane, Beñat, Itsaso, Amaia eta Asier esnatu ziren. Ederra porrua egin genuena!

**Urtero dabil batzuen aho- tan Erregerik ez dagoela, dena gezurra dela...**

*Gaspar:* Pelma galantak, urtero berdin. Oso haserre gaude gu horrela dabilzanekin. Aber... Zein geratu da inoiz Orion erregalirik gabe? Nork jarri dizkio, ba? GUK!! eta aurten ere, zaudete lasai, etorriko gara.

# BERTSOAK

1996. urtean sartu berriak garen honetan ezinbestekoa zen urte berriari buruzko bertsoak egitea. Txandaz txanda euren bertsoak egiten dizkigutenean Esoain, Sukia eta Lasarte hirukotetik Eusebio Lasarteri tokatu zaio oraingo honetan. Hona hemen, beroz, berak egindako bertsoak.

-1-

Bertsoak jartzeko pauso  
hartua dut animoso  
larogei ta hamabosta joan da  
ez oso eroso  
Berria heldu bedi gozo  
berpiztu kale ta auzo  
larogei ta hamaseiari esan  
behar zaio kaixo.

-2-

Urte berria kantari  
eskatu nahi nuke hari  
argitasuna eman zaiozu  
gure herriari  
elkartasunaren sari  
egin zaiguzu mirari  
gutxinez lana eskain zaiozu  
paron dagonari.

-3-

Beharrak gaitu mugitzen  
ezina degu sentitzen  
gaur egunean pobreak ez du  
bitzitza bizi  
buruz bagera hornitzen  
ta bihotzez irikitzen  
etorkizuna ea deguan  
denok eraikitzen.

-4-

Gaztediari hitza zor  
portatu zaitez jator  
zuek zerate gure geroa  
ta izan emankor  
aipa nahi nuke derrigor  
zuen borroka bat da hor  
soldaduzkarik ez egitea  
dezakezute lor.

-5-

Oriotarren kukua  
ez da gozatu nahikua  
estropa mailan lengoa gendun  
urteurrezkua  
Kontxa zala lortzekua  
jokua da arriskua  
aurten udalan zintzilikatu  
behar da Kontxakua.

-6-

Urtean zahar geranontzat  
bitzitzi heldu behintzat  
suerte onena irriki diot  
langilearentzat  
sasoi ona kulturantzat  
amnistia presoentzat  
urte berria zoriontsua  
opa dut denontzat.

## DORRONSORO

### Janaridenda

Abeslari 3

83 09 37

## ALUYOLA, S.L.

LEIHOAK, ATEAK, TERRAZAK,

BAINU MANPARAK

P.V.C., ALUMINIOA,

POLIURETANOA

KOLORE AUKERA UGARIA

*Fatima Azpiroz Ibarreta*

Jaizkibel plaza, 8 LASARTE  
Telefonia: 36 22 77

## EROSLE

AUTOZERBITZUA

## BORDATXO

● Bokadilloak

● Marisko razio bereziak

83 30 14

# Olatxo

Santio auzoan dago Olatxo baseria. Orionik joanez gero ezkerrean geratzen da. Portuko atzealdean, erreka pasata. Olatxo ezaguna da betidanik angula asko harrapatu izan dituztelako bertakoek. Anguletarako eta arroketarako afizio handia izan dute beti.

ANA ITURAIN

Olatxon Dionisio Eizagirre, bere emazte Maria González de Txabarri eta hauen semea Jose Mari bizi dira. Mariarekin hitz egin dugu, senarra gaixorik zegoelako eta Jose Mari, berriz, marca biezak muntoan eragindako putzuetako ura biltzen edo lehortzen ari zelako. Beste bost seme-alabak kanpoan daude ezkonduta.

Orain Eizagirretarrak badira ere hor bizi direnuk, bera. Dionisioren ama zen baserriko, beraz Azpirotarrak ziren Olatxo baserriko kastakoak. Segakoak eta Morakoak ere senitartekoak dituzte.

Olatxo, inguruko baserriak bezala, markes batena zen eta gero Diputazioak erosia zuen. Oraino jabeek Diputazioari erosia zioten

1930ean eta 28.000 pezeta ordaindu zituzten. Gari hartarako izugarri.

## Untziola

Baserriaren izena, Olatxo, orain dela ehun urte baino gehiago han zegoen untziola batetik datorkio. Untziola zegoen garaian inguru horretan dena ura zen. Oraindik ere ikus daitezke han zegoen moilaren aztarnak.

Orain dela gutxi arte Orion genuen ura handik pasatzen ziren hodi batzuetatik etortzen zen eta lehertu izan direnetan konpontze lanetan hasi eta untziolan erabiltako barni puskak aurkitu izan dituzte.

Baserritik bizi dira Ola-

txokoak, hainbat behi dituzte eta haratzeko artoa eta tomatea saldu egiten dute. Oi-loak, milaskoak eta urtean behin hiltzen duten zerria, berriz, etxerako dituzte.

## 60 urtetik gora esnea partitzen

Badira 60 urte, gutxienez, esnea partitzen dutela Orion, astegunetan Jose Mari, semea, ibiltzen da eta igandetan Maria izaten da horretaz arduratzen dena. Mariak berak brometan esan bezala "Orion orain arte hildako zaharrenak, Joakineta Enbilak, Olatxoko esnea hartzen zuen". Ez dago ba, esnearen kalitatearen zalantzak, ezta Mariak egiten duen membran-

loarenta ere. Jende askori esan dio sagarrekin egiten duen membriloaren errezeta, eta Madrilera ere bidaltzen du. Nik probatu egin nuen eta kategorikoa dela esan beharra daukat.

## Angulak baserri ondoan

Baserriko ohizko lanak egin eta gero semea anguletan ibiltzen da motorrarekin gero jendeari saltzeko, oso estimatuak izaten baitira, eta biberri txiki bat ere badaukate. Baserri ondoko errekan ere harrapatzen dira. Nahiko gutxi orain, baina garai batean devente. Maria bera ere ibilia da anguletan, balserk gabe, saku txiki buttzuekin.



Gipuzkoako Kultura Probintzialak 1930eko abenduaren "Realidad" bere aktibitatean uterutako argazkietako bat. Orain Diputazioak kontrario batetan jartzea dago argazki

## **jaiotakoak**

Gratxina Lerbundi Zugasti,  
abenduaren 14an

Pablo Iturain Diaz de Ibarraza,  
abenduaren 26an

### **Aian**

Ez da inor jaiotakoak

## **ezkondutakoak**

Aitor Mujika Rezabal eta M. Koro  
Esteban Vivas, abenduaren 2an

### **Aian**

Felix Urbieto eta M. Angeles  
Albeniz, abenduaren 2an

## **hildakoak**

M. Francisca Mariñelarena,  
azaroaren 29an, 50 urte

Juan Inazio Eizmendi, abenduaren  
18an, 78 urte

Inazia Iparragirre, abenduaren  
22an, 76 urte

M. Jose Zinkunegi, abenduaren  
24an, 32 urte

Jose M. Aruti, abenduaren 27an,  
35 urte

Maria Begiristain, abenduaren  
29an, 83 urte

### **Aian**

Pedro M. Beldarrain Idarreta,  
azaroaren 27an, 76 urte

Daniel Erasun Oriozaibala,  
abenduaren 12an, 71 urte

## **zorionak**

### **Eskaparatistei**

Urte sasoi hau iristen denean ohitu gara, ia  
urtero urtero, herriko eskaparate egileen lanak  
saritzen dituztela ikusten. Eta ez da egun  
hauetako lana bakarrik, baizik eta urtean zehar  
jartzen duten arreta gure bistaren  
gozamenerako.

Oriogi, Kuttun edo, nahiz eta denda Lasarten  
izan, Ana Rosa Iparragirreri hemendik gure  
zorionik beroena.

## **zoriotxarrak**

### **Eskolen arteko giro txarrari**

Irakurriko zenuten Herriko Kontuetan, Udal  
plenoan izandako eztabaidearen berri. Plenoko  
giroa, zenbait momentutan, benetan gordina,  
gogorra eta erabat garratza izan zen giroa eta,  
hain garrantzi handiko gaia izanda esku artean  
dabilikiguna, ez zaigu iruditzen ezertan  
laguntzen duenik guzti horrek.

## **ARGI-GAIAK**

**elektrizitatea**

Iturbide 11, Tfnoa: 83 17 74

**daddy**

**BAKERO, NIKI,  
KAMISETA, JERTSEAK...**

Estropalari kalea, 12 - Telf. 132816 - ORIO

## **LIZASO ALTZARIAK**

Eusko Gudari, 46 **T** 83 07 84  
Aita Lentxundi, 6 **T** 13 33 01

**ITURAIN  
okindegia**

Aritzaga Plaza **T** 83 08 28

**ertza**

**Telfonoa: 83 09 29**

# Orain dela 25 urte...

✓ Orain dela 25 urte, urte garai honetan Burgosko epaiketa izan zen eta herri gehienetan protestak eta manifestazioak egin ziren. Dena den Orion, aza-roan, arrantzaleen jaiak ospatu zituzten eta aben-duan, orain bezala, San Nikolasak. Bi eguneko programa daukagu eta esan dezakegu denborarekin Orioko jaiak aberastu egin direla. Hona hemen San Nikolas eta San Nikolas bigarreneko festa progra-ma:

## 1970-XII-6

8:00 Diana  
10:00 Meza Nagusia  
12:30 Zumaiko Bandaren kontzertua  
18:00 Musika plazan, Hermanos Semper

## 1970-XII-7

8:00 Diana  
12:00 Batel estropadak  
18:30 Musika plazan, Jai-Alai taldea.

✓ Estanis Irigoien aiarrak eta Jose Inazio Saizar 'Luzarbe' oriotarrak laugarren eta bosgarren izan

ziren Zarautzen jokatu zen Euskal Herriko harrija-sotze txapelketan. Irigoienek 74 aldiz jaso zuen harria eta 6.000 pezeta balio zuen butano sukalde bat irabazi zuen. Lizarbek, berriz, 73 jasoaldi egin zituen eta 4.000 pezeta irabazi zituen.

✓ Santiago Manterola, Jose Manuel Peña eta Manuel Urangari salbamenduko domina czarri zien Salbamendu eta Sokorrismo Federazioak Cariñon ito ziren San Gabriel baporeko Manuel Brit eta kanpoko arrantzale baten gorpuak erreskatatzeagatik.

✓ Aiako Izetak bi idi parerekin parte hartu zuen Santo Tomas idi-dema sarian eta bigarren eta seigarren postuak eskuratu zituen.

✓ Iruntxiberri aiarrak lau probako apostu bat egin zuen Irazuren aurka. Abenduan egin zuten lehenengoa, eta irabazi egin zuen. Proba hau zortzi kilometro lasterketa izan zen eta hama-zazpi segundu kendu zizkion Irazuri.

# HIZKI ZOPA

K	I	A	E	N	I	U	G	E	D	Z	I	T	R	O
N	J	R	B	E	T	G	W	E	A	D	N	K	O	E
N	H	O	I	D	N	E	M	Z	I	E	F	R	N	P
V	I	S	A	N	J	I	R	O	N	J	S	I	T	R
B	E	T	R	A	S	A	L	Z	F	R	A	L	P	O
F	R	E	R	P	X	A	L	B	A	R	D	I	N	X
B	H	G	U	A	A	R	P	Ñ	U	B	A	X	Z	D
Ñ	P	I	T	R	M	A	N	T	E	R	O	L	A	E
M	K	I	I	B	Y	A	I	E	S	T	A	R	A	N

*Bukatu berri den urtean KAR-KARAn elkarrizketatu ditugu-nen abizenak*

*aurkitu behar dituzue.*

*Aurreko aleko tabernen izenak hauek ziren: Salatxo, Errusta, Koasta, Tragoxka, Gure Txoko, Amilibia, Bordatxo, Kolon Txiki, Arkaitz, Gabon, Sarasua eta Blink.*

## Karta Hiru Erregeei

Eskatu behar dizuedana gogor samarra da zuentzat, baina ausartu egingo naiz. Euskaldunon artean Olenzeroren alde egin dezazuen eskatzerena natorrizue; urte gutxi barru zuen lekua berak har dezan euskal familietan. Euskaldunok oso harrera ona egin ohi diegu kanpotarrei, baina garai gogorrak ditugu oraingoak, lan gutxi, diru gutxiago, eta gurea zaindu beharra daskagu.

Egia esan, nik ez daukat ezer Hiru Erregeen kontra. Txikitán oso jostailu onak ekarri zizkidaten. Urte batean, erregeen karteroaren, Bizar-Zuriaren, danborjole eta ibili nintzen. Hala ere esan behar dut Errege Katolikoen garaitik, behintzat, erregeek ez digitela ezer onik ekarri euskaldunoi. Gainera ni ez naiz sekula monarkikoa izan, zer arraio! Horiek horrela, Gipuzkoako futbol talde ezagunenaren izena ere aldatu egingo nuke nik.

Baina erregeak alde batera utzikó ditut, nik Olenzeroz hitz egin nahi dizuet eta. Urrea, intzentzua eta mirra (zer ote da?) ez ditu ezagutu ere egiten gure Olenzerok, hau pobrea eta arlotea da, baina jatorra. Errioxako ardoa edanda mozkortzen da, bere pipan Orioko kontrabandisten tabakoa erreta zoratzen da, eta, kortejatzean, euskaldun gehienok bezala, lotsatzen denez mutil zaharra da. Gainera Tolosako txapela jantzia dabil beti, Juan Kruz Alli bera baino dotoreago; eta Jesusen jaiotza ospatzera euskal mendietatik etortzen zaigu, ez Ekiade-Urunetik, beste batzuk bezala. Eta ez da ganbelu arrotzen gainean etortzen. Oinez edo, asko jota, hain gurea den asto baten gaineran. Beraz, garbi dago, Olenzerok ederki irabazita dauka 'euskal labela'.

Olenzero bera izan daiteke gure Lehendakaririk onena, denok nahi omen dugun zorioneko bacea ekaniko ligukeena. Baina oraingoz ez diot horren beste eskatuko. Oriolar guztiontzat 'Kontxa' izeneko pannina eskatuko diot, iaz Erregeek ez ziguten ekarri eta.

Erregeei, berriz, horixe eskatzen diet, etxeekoari, Olenzerori, lekua egiten hasteko. Baina ez daitezela zeharo desagertu, bestela gure agintari arduratsuek haurrean oporraldia urtarriaren 2an bukatuko luke eta. Eta ez da komeni. Erregeen festarekin Konstituzioarenarekin bezala egin beharko genuke, ospatu ez baina jai hartu. Bide batez, eskatu nahi diet lekua Olenzero bakar bat uzieko, Orio herri txikiagia baita birentzat.

Karta honek beste ezterako balioko ez duenez, gutxienez, ikus dezazuen KARKARAko guztioek ez dugula berdin pentsatzen, izan ere, beste batzuek elkarrikzeta egin diete Hiru Erregeei ale honetan bertan, debaldeko publizitatea eginez.

Abenduaren 28an idatzia. Urteberri on!

● IKAKI ITURAIN ●

## KANPOAN DAUDEN ORIOTARRAK



### Iona Rekarte Cowie

Ionak ez darama denbora gehiegiz New Castlen, joan den urrian joan baitzen Aia utzita. New Castle Ingliterran dago, iparraldeko kostaldean, Ezkozia ondoan. Hiri handia da eta kirolzaileen artean ezaguna Atletico-i irabazi ziolako.

Bertara joateko arrazoiak garbi azaltzen dizkigu. "Nik hasieratik nahi nuen Inglaterran ikasi, karrerak interesgarriagoak eta motzagoak direlako eta, gainera, asignaturak zuk aukeratzea dauka zulako. Nik egin nahi nuena bi tokian zegoen, bietan eman nuen izena eta New Castlen sartu nintzen". Iona landare eta animalien biologia, hiru urteko karrera ari da ikasten hango unibertsitatean.

Ionak dioenez gazteen artean bizimodu ezberdinak

aurkitzen dira. Bere ustez, han ikasleak askoz hobeto bizi dira. Hamarretik bederatzi etxetik kanpora bizi dira, eta hemengo aldean opor luzeagoak dituzte. Hilabete bat Gabonetan, beste bat Aste Santuan eta hiru hilabete udaran. Baina, hala ere, nahiko bizi modu aspergarrria iruditzen zaio, janaria ere ez zaio horren ona iruditzen eta dena goizago egiten dute.

Faltan ezer botatzen duen galdetuta, zera erantzun digu: "Ez naiz izugarrizko herriminarek egon, baina lagunak, familia, parrandak, eta giroa faltan bota ditut. Euskal Herriko bizitzeak beste ikuspegia dauka, hango iluna da. Azkenik, harrigarria izan baditeke ere, faltan bota dudan beste gauza eguraldia izan da, han izugarrizko hotza egiten baitu".

# 1954an frontoiko dema-plaza inauguratzeko egin zen jaialdia

1954 arte herriko plazan egon zen demarako probalekua. Urte hartan plazatik frontoira aldatu zuten, eta han egon zen frontoia itxi zuten arte. Probaleku berriaren inauguraziorako lagunarteko zerbait egitea pentsatu zuten 'Campo' izeneko kooperativakoek.

ANJEL ARRUTI

Pentsatu eta aste betera zen inauguraciona, beraz gauzak azkar egin behar ziren. 3.000 kiloko harria hamar lagunen artean ordu erdian mugitzea erabaki zuten. Kondizio bezala apustutan ibili gabeko jendea izatea jarri zuten haserterik gerta ez zedin. Aiako kuadrila bat biitu, Orioko beste bat osatu eta inauguraciona prestatzen hasi ziren. Hemengo jendea, gehienbat, baserriko zen, zergatik ez dakit, baina hala gertatu zen. Aiarrek hamar lagunetik bakarra zuten apustutan ibilia, Joakin Atxaga, eta Oriokoek, beste bat, Antonio Erretzabal.

Aiarrek Zarautzen ibili omen ziren entrenatzen, gu, orioturrok, Orion. Biltzeko gaizki ibiltzen ginen, lanera joan baino lehenago, goizeko seiak aldera entrenatu eta gero lanera. Horrela ibiltzen ginen. Goiko zahar jende guztia, gurasoak, gurasoen



*Jaialdi hartan parte hartu genuenak: Jose Irastorza, Baleriano Etxeberria, Luis Brit, Anjel Arruti, Jose Arruti, Juan Eizagirre, Antonio Mujika, Benito Lertxundi, Jose Antonio San Sebastian (entrenadore), Jose Etxeberria eta Luis Irastorza*

lagunak, ezagunak, denak ibili ziren guri erakutsi nahi, baina bigarren egunean harria puskatu egin zitzagun, eta akabo gure entrenamenduak. Zerbait ikasten hasi ginenean harria puskatu eta ezer egin ezin. Zurruurrak iritsi zitzazkigun aiatrek oso ondo mugitzen zutela harria. Plaza pare bat egingo zituztela zabaldu zen herrian, eta guk bagenekien harria mugitzen genuela, baina zenbat ez, esperantza baguen, baina... gurea duda bakarrik zen eta haiena egunero entrenatzearen fruktua. Azkenean, iritsi zen 1954ko maiatzaren 16a, igandea. Arratsaldean, bzkalondoan, frontoira joan baino lehenago, Il Gelato eta Jose Ramon Salsamendiren lokaladagoen horretan, Udalak bazuen lokal txiki bat eta hara eraman gintzutzen. Lokal hartan animaliak pisat-

eko erabiltzen zuten baskula bat zeukaten. Manuel alguazilak pisatu gintuen. Gu, oriotarrok, hamar lagunek 800 kilo. Aiarrek, 808 kilo. Han bildurtu ere egin ginen, "handiagoak dituk".

Ingruko herrietatik jende dexente etorri zen, halako gauzak gutxitan ikusten zirenetan. Korredoreak eta guzti etorri ziren, eta jendeak apustu batzuk egin zituen, baina, berez, hura ez zen apustua. 30 bat metroko frontoia izango zen. Frontoiak argi eta garbi ikusten ziren harri bat zinta izango zituen. Txanpona gora bota zen zein hasi eta guri tokatu zitzagun. Kolpe txikiak emanaz hasi ginen, baina gero dena ia jarraian eraman genuen batetik besteretan. Harriak baranda bat besterik ez zuen heltzeko, eta eskuak odoletan genituela bukatu genuen.

Guk hiru plaza eta bi zinta

egin genituen. Hauek txanda iritsi zen. Berdintsu hasi ziren. Dexente ibili zuten arrastaka, baina hiru plazara ez ziren ailegatu, zinta pare batetan faltan geratu ziren.

Sarrerek ateratuko di-ruarekin Esnal jatetxearen afaria ordaindu zigunen. Diskusiorik ez zen izan eta dema baikean bukatu zen.

## Usurbilen ere bai

Usurbilen gerra aurretik egin zen apusturen bat. Han 4.000 kiloko harri bat zegoen. Eginahalak eginda ere hango inork ez zuen lortu harriari buelta ematea. Oriokoek zortzi lagunek buelta eman baitzegan zuten apustua. Inazio Sarasua, Salmaitzako Joxe Zumeta, Olako Martzelino, Joxe Zumeta, eta beste lau ziren Oriotik. Baita buelta eman ere harriari!



## **EZETZ EZAGUTU! lehiaketa**

*Oraingo honetan aiarrei ere parte hartzeko aukera emango diegu. Argazkia Aian atera zen Jaunartze egunean D. Hilario apaizarekin orain dela 35 urte, 1960an. Hor azaltzen diren neskek zazpi urte zituzten. Hamaika horietatik bosten izen abizenak esan behar dizkiguzue.*

*Bigarren galdera: Nongoak dira Errege Magoak?*

*Orain arte egin dugun bezala, afari bat zozketatuko dugu asmatzaileen artean.  
Afaria Loretxu Jatetxearen izango da.*

*Erantzunak urtarrilaren 20rako bidali behar dizkiguzue, helbide honetara:*

**KARKARA aldizkaria Ezet ezagutu! lehiaketa Herriko plaza, 1 (Udaletxe atzeko karkara)  
edo Aiako Kultur-Etxera.**

*Aurreko irabazlea Agustin Erkizia izan zen. Hau zen eman beharreko erantzun posibleetako bat: Jose Miguel Lasa, Manuel Urkizu, Jose Zaldua, Gabriel San Sebastian eta Justino Salsamendi.*

*Bigarren galderaren erantzuna: Intxauspek eta Sarasuak 1975eko uztailaren 22an debutatu zuten.*

**LORETXU** Urtarrilaren 12tik aurrera  
**JATETXEA** TXOTXETIK

# Orioko Udalak

*urte berri on  
opa dizue herritar guztioi*

HARAGIA GUSTORA JAN NAHI  
BADUZU EROS EZAZU...

**Kepa Loidi**  
harategia urdaitegian

Pelotari, 1 Tfnoa 83 25 65

**AURRERA**

disko-taberna

ORIO

**ZASS**

ILEAPAINDEGIA  
ESTETIKA  
MIXTOA

SOLARIUMA  
PERFUMERIA

San Nikolas, 2 Tfnoa: 83 31 70



Gure  
herriko  
garagardoa

**iTZiAR**

Kirolak

Tfnoa: 83 31 03

**bai-ondo**  
Supermerkatua

Tfnoa: 83 47 50

**Carmen**

ARRAINDEGIA

Tfnoa: 83 05 37

**TXOMIN**

ARRAINDEGIA

Tfnoa: 83 27 47

